

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak aisialdiko lekuetara joateko gidari eta guzti kontratatzeko (Gautxori) dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 815784.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/815784>.

Alkatearen otsailaren 17ko ebazpena, zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak aisialdiko lekuetara joateko gidari eta guzti kontratatzeko (Gautxori) dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Udalerrian erroldatutako pertsonak izango dira onuradunak, baldin eta gutxienez urtebete antzintasuna badute eta Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean badituzte dirulaguntzaren behin betiko ebazpena eman arte. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru sarreretatik eratorritako zor oro hartuko da kontuan, geroratuta, zati-katuta edo etenda dauden zorrak edo zehapenak izan ezik. Eginbehar hori adin txikikoen edo legez ezgaitutako pertsonen tutoretza daukaten pertsonen ere aplikatzen zaie. Bi betebeharrak eskaerak ebatzi arte bete behar dira.

Bigarrena.- Xedea

Diruz lagundu ahal izango da gaueko 23:00etatik goizeko 07:00etara Arabako Lurralde Historikoko edozein herritara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailu bat gidari eta guzti kontratatzeagatik sortzen den gastua.

Pertsona eta hileko, gehienez, 4 bidaia/ibilbide lagunduko dira diruz.

Udalerriko herrietako batek izan beharko du bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga.

Gau berean joan-etorria egiten bada, bi bidaiatzat/ibilbidetzat hartuko da.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, horietako bati baino ez zaio diruz lagunduko kostua.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2022ko abuztuaren 17ko bilkuran onetsi eta urriaren 7ko 115/2022 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak egindako gastuaren ehuneko 40koak izango dira, aurrekontu partida agortu arte.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskatzaileek eskaera bana aurkeztu beharko dute hilero, egindako bidaien/ibilbideen zerrendarekin.

Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Enpresaren faktura edo harekin pareka daitekeen tiketa, egindako ibilbidearen eguna, ordua eta jatorria eta helmuga jasotzen dituenak.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2025eko otsailaren 17a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE